

Galtzeko ezer ez zeukanean irabazi du Urko Rodrigok

Urko Rodrigo Atarrabiako Caja Ruralen bulegoan itxi zen urriaren 2ko goizean. Bi kreditu sinatu zituen finantza erakunde horrekin eta ezin zituen ordaindu.


| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

“ESKUA BIHOTZEAN dudala esaten diet [Caja Ruraleko] zuzendariari kreditu horiek sinatu nituenean inoiz ez nuela pentsatu nagoen egoera ekonomikoan egongo nintzenik eta oso mingarria izan da niretzat egoera hau: hainbeste indar jarri dudanean etxea galduko dut, zor handiarekin geratuko naiz eta jada nire amari enbargoak egiten ari dira. Nire egoeran, ez daukat galtzeko beste askorik”, irakur daiteke Urko Rodrigok bere egoeraz informatzeko zabaldu duen blogean. Negoziazioa lortzea izan da itxialdiaren helburua, etxea galdu eta zorrekin ez geratzeko. Azkenik, etxea zorraren truke ematea adostu du.

Bi kreditu ordaindu ezin

2007. urtean hasi zen dena: Rodrigok Saldisen lokal bat erosi zuen, berritu eta etxe bihurtzeko asmoarekin. Obrak bere kabuz egin nahi zituen, baina Udalak proiektu bat egiteko eskatu eta hori ordaindu ahal izateko Cajar Ruralen kreditu pertsonala eskatu zuen (14.000 euro). Ondoren, beste kreditu hipotekario bat ere eskatu zuen (97.000 euro). Kreditu horretarako berme-emailea Rodrigoren ama izan zen.

2012ko uztailean Rodrigo diru-sarrerarik gabe geratu eta kreditu pertsonala ordaindu ezin da geratuko da, 1.275,04 euro itzultzea besterik falta ez zaiola. Urte bereko abuztuan kreditu hipotekarioa ordaintzeari ere utziko dio, arrazoi berdinegatik.



Goian, itxialdia hasi aurretik zabaldutako bideoa. Erdian, goiz partean egindako elkartasun bilkura. Behean, lortutako akordioa eskuetan duela.

Caja Rural dirua eta interesak eskatzen

Eta 2013ko uztailean Caja Rural bere kontra hasiko da: ordaintzeko zeuzkanak eta ohiko interesak eskatuko dizkio, guztira 83.000 eurotik gora. Interes horiek puze joan dira eta urte bereko azarorako 100.400 euro baino gehiago eskatzen dizkiote.

Ez hori bakarrik: Rodrigoren amari, berme-emailea delako, dirua enbargatzen hasten dira, 188,6 euro hilabetea 2012ko azarotik 2013ko maiatzera, guztira 1.320 euro –gogoratu kreditu pertsonaletik 1.280 zeuzkala ordaintzeko Rodrigok–, eta oraindik beste 1.000 ordaindu behar dituela dio Ruralek, “sortu dituen gastuengatik”.

Azkenik, eta horregatik urriaren 2ko protesta, Rodrigok jakiten du bere etxea enkantean salduko dutela. Hori saihesteko, itxialdia egin duen arte finantza erakunde-ko bulegoan egin dioten proposamen bakarra da hilero 200 euro ordaintzen hastea kreditu pertsonalaren zorra kitatzeko. Behin hori eginda, beste kredituaren kontua nola argitu aztertuko dutela esana zioten.

Rodrigok bestelako proposamena egin du: etxea hipotekaren truke ematea.

Eta itxialdiarekin, eta Pello Gastearena Atarrabiako alkatearen (Bildu) bitartekaritzarekin, lortu du helburua. ■

